

**Emakumeak Tony Craggen eskultura bati begira** / Mujeres observan una escultura de Tony Cragg. Dusseldorf, 1989

© Fototeka Kutxa / Isabel Azkarate Funtsa

Estudio Lanzagorta

3.000 ale/ejemplares | 0,2€ bakoitza/cada

**San Telmo Museoa**
Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus
santelmo@donostia.eus
@santelmomuseoa

**ORDUTEGIA / HORARIO**

Asteartetik igandera
De martes a domingo
**10:00–19:00**

**Apiriletik aurrera / Desde abril**
**10:00–20:00**

Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik
Lunes cerrado, festivos abierto

**LABORATEGIA / LABORATORIO**
SARRERA DOHAINIK
ENTRADA GRATUITA

Kutxa Fundazioak Isabel Azkarateri buruzko atzerabegirako erakusketa bat antolatu du Donostiako Tabakalera eraikineko Artegunea aretoan 2023ko abenduaren 2tik 2024ko otsailaren 25era bitarte, eta San Telmo museoko *Isabel Azkarate. Arte eta parte* erakusketa hau aurrekoaren osagarri da.

Bi erakusketetan ikusgai dagoen antologia Blume argitaletxeari eta Photographic Social Vision fundazioari esker argitaratu ahal izan da, Kutxa Fundazioaren eta San Telmo Museoaren laguntzarekin.

La exposición *Isabel Azkarate. Arte y parte* en el Museo San Telmo complementa la exposición retrospectiva que Kutxa Fundazioa dedica a la autora desde el 2 de diciembre de 2023 hasta el 25 de febrero 2024 en la sala Artegunea del edificio Tabakalera en Donostia / San Sebastián.

La publicación antológica que acompaña ambas exposiciones ha sido posible gracias a la editorial Blume, la Fundación Photographic Social Vision y a la colaboración de Kutxa Fundazioa y el Museo San Telmo.

ANTOLATZAILEAK / ORGANIZAN

LAGUNTZAILEA / COLABORA

ERAKUNDE BABESLEAK / SOCIOS INSTITUCIONALES

**Gizona Edward Hopperren *Emakumea eguzkitan*-i begira** / Hombre observando la obra *Mujer al sol* de Edward Hopper. Whitney Museum of American Art, New York, 1980

**SAN TELMO MUSEOA**
**ERAKUSKETA** EXPOSICIÓN
2024.01.27 / 2024.05.05

# ISABEL AZKARATE

## ARTE ETA PARTE
## ARTE Y PARTE





Isabel Azkarate Euskal Herriko lehen emakume fotokazetariaren erakusketa hau hiru serie tematikoz osatuta dago, eta hirurak josten dituen haria gizakiak artearekin duen lotura estua da.

Artezale amorratua eta mota guztietako kultur jardueren kontsumitzaile porrokatua izaki, panorama artistikoa lehen lerrotik bizi, gozatu eta dokumentatu izan du, beti, argazkilariak, pasioz eta irrikaz. Bere argazki-artxiboan, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan izandako ekitaldi ugari aurki daitezke, eta gure mugen barruan eta kanpoan oso ezagunak diren artisten erretratuak ikus ditzakegu.

Bere kamera, gainera, Euskadin adierazpen askatasuna eta identitatea goraipatzen zituen indar handiko mugimendu kontrakultural baten jaiotzaren lekuko izan zen, trantsizio politiko betean. Horregatik, hemen ikusgai dagoen lehen serieko erretratuetan euskal kulturan oso esanguratsuak diren artisten espiritu sortzailea nabarmentzen da. Margolariak, eskultoreak, idazleak, musikagileak eta zinemagileak; Isabelekin esperientziak eta ezinegonak partekatutakoak, intimitate eta konplizitate sakoneko argazkiak haiekin ateratakoak.

Publikoaren eta artelanen arteko elkarreragina da bigarren seriearen oinarria. Adin, genero eta mota guztietako jendeak erreakzioa izaten du artelan garaikideen aurrean eta, batik bat, emakumezko gorputzaren irudikapen hiperrerrealisten aurrean. Argazkilariaren begi ironiko eta ausartak sistematikoki erregistratzen ditu keinuak, pertsonaia anonimo horien nortasuna agerian uzten duten keinu espontaneoak. Irudi horiei so eginez, behatzen ari ziren bitartean behatuak izan diren pertsonak behatzeko aukera dugu: zirkulu voyeuristiko ederra.

Hirugarren seriea New Yorken ateratako argazkiak dira, 80ko hamarkadakoak. Gaur arte sekula ikusgai jarri gabeko seriea da: Amerikako Historia Naturaleko Museoaren biltegietan gordeta zeuden amerindiarren eta afroamerikarren bustoak, igeltsuzkoak edo egurrezkoak. Gizaki ahaztuak, isilduak, baita biluziak ere, estigma bikoitza jasanez bizirauten zutenak: alde batetik, arrazializatutako estatubatuarren komunitate bat irudikatzen zuten, herrialdearen historia ofizialeko bigarren mailako protagonistak; eta, bestetik, irudikapen zaharkitua eta politikoki okerra izaki, museoaren diskurtso at geratu ziren. Figura adierazkor horiek Isabelen begirada enpatikoaren eraginpean jarrita, ordea, badirudi ahotsa goratzen dutela galdutako duintasuna berreskuratu nahian.

Photographic Social Vision fundazioa Azkarateren ondarea ikertzen ari da 2020. urteaz geroztik, artistaren ordezkari den aldetik, eta hiru argazki-serieak ikerketa-lan horren ondorio izan dira. Azkarateren obrari esker –egun berrikusi ostean–, XX. mendearen azken hamarkadetako kultura bisualean nonahi agertu diren irudikapenak, korronte nagusitik at dauden zenbait kolektiboren irudikapenak osatzeko eta, era berean, zalantzan jartzeko aukera ere badugu.

**SIlvia Omedes**
Komisarioa

**Emakumea William Sidney Mount-en lanei begira eta G.P.A. Healy-ren erretratua**
Mujer observando las obras de William Sidney Mount y retrato de G.P.A. Healy. Metropolitan Museum of Art. New York, 1981



**Juan Luis Goenaga margolaria** / El pintor Juan Luis Goenaga . Alkiza, 1991



La íntima relación del ser humano con el arte es el hilo conductor que conecta las tres series temáticas que componen esta muestra de Isabel Azkarate, considerada la primera mujer fotoperiodista del País Vasco.

Como gran aficionada al arte y ávida consumidora de todo tipo de actividades culturales, la fotógrafa ha vivido, disfrutado y documentado el panorama artístico, siempre desde primera línea, con evidente pasión y entusiasmo. En su archivo fotográfico encontramos registrados innumerables eventos durante los años ochenta y noventa y hallamos retratos de algunos de los artistas más populares dentro y fuera de nuestras fronteras.

Su cámara fue además testigo del nacimiento de un potente movimiento contracultural que, en plena transición política, celebraba la identidad y la libertad de expresión en Euskadi. Por esa razón, la primera serie expuesta aquí consiste en una selección de retratos que destacan el espíritu creativo de algunos de los artistas más significativos de la cultura vasca. Pintores, escultores, escritores, músicos y cineastas con los que Isabel ha compartido experiencias e inquietudes y a los que ha fotografiado con profunda intimidad y complicidad.

La interacción del público con obras de arte fundamenta la segunda de las series presentadas. Gente de toda edad, género y condición reacciona ante obras artísticas contemporáneas, sobre todo representaciones hiperrealistas del cuerpo femenino. El ojo irónico y audaz de la fotógrafa registra sistemáticamente una diversidad de gestos espontáneos que delatan la personalidad de estos personajes anónimos. La contemplación de estas imágenes nos permite observar a personas que han sido observadas mientras a su vez observaban, lo que genera un virtuoso círculo voyeurístico.

La tercera serie de fotografías fue captada en Nueva York en los años 80. Inédita hasta hoy, descubre una estimulante colección de bustos de amerindios y afroamericanos, moldeados en yeso o tallados en madera, que yacían en los almacenes del Museo Americano de Historia Natural. Seres olvidados, silenciados e incluso desnudados, que sobrevivían a un doble estigma: representar a una comunidad de estadounidenses racializados, protagonistas secundarios de la historia oficial del país, y suponer una representación caduca y políticamente incorrecta, que los retira del discurso museístico. Estas expresivas figuras ante la mirada empática de Isabel, sin embargo, parecen alzar la voz para recuperar la dignidad perdida.

Las tres series fotográficas surgen de la investigación del legado de Azkarate que desde 2020 viene realizando la Fundación Photographic Social Vision, como representante de la autora. Revisada en la actualidad, su obra nos permite complementar y también cuestionar la representación de distintos colectivos al margen de la corriente principal, que han impregnado la cultura visual en las últimas décadas del siglo XX.

**SIlvia Omedes**
Comisaria

**The American Museum of Natural History.** New York, 1981